



## ***Ohiz Kanpoko Batzarraren Agiria***

### ***2015eko ekainaren 15a***

2015eko ekainaren 15ean, 18:00etan, Zabalarra eskolan Guraso Elkarteko Biltzar Orokorrak salbuespen deialdia egin du. Batzarrera 50 kide eta zuzendaritza hurbildu dira: Esti Intxausti, Mariola Cuellar, Eguzkiñe Salterain, Isa Gonzalez eta Gaizka Agirre.

Deialdiko puntu bakarra estatutu berrien onarpena da. Lehendakariaren hitzetan, eta deialdian zehazten zen bezala, 10 egunetan zehar blogean ikusgai egon dira estatutu berriok.

Aurreko estatutuen eta berrien arteko aldaketak aipatu, eta aho batez onartu dira berriak.

Bilera 18:10ean amaitu da.

## ***Ohiko Batzarraren Agiria***

### ***2015eko ekainaren 15a***

2015eko ekainaren 15ean, 18:30ean, Zabalarra eskolan, Guraso Elkarteko Biltzar Orokorrak batzarra deitu du. 52 bazkide eta zuzendaritza elkartu dira: Esti Intxausti, Mariola Cuellar, Eguzkiñe Salterain, Isa Gonzalez eta Gaizka Agirre.

#### **1. AURREKO BATZARREKO AKTAREN ONARPENA.**

Aktaz gain, hemendik aurrera egiten diren batzarretako aktak blogean irakurri ahal izatea ere onartzen da; horrekin batera, aktetan akordioak bakarrik agertzea onartzen da, izen propiorik barik. Izena, pertsonak berak agertzea nahi badu baino ez da agertuko.

#### **2. IKASTURTEAN ZEHAR BURUTUTAKO EKINTZEN BALIOESTEA**

Orain arte **Kirol-arduraduna** izan den pertsonak ardura hori laga eta lan horretan arituko diren 3 lagunen berri eman da (Egoitz, Lorena eta Alex). Ikasturte honetako kirol-ekintzen aipamena egin da:; 4 futbol-talde, karateko 2, saskibaloiko beste 2 (batek lehiatu egiten zuen, besteak ez) eta multikiroletako talde 1. Aipatzen da, baita ere, atletismora, Landakora, ume bakoitza bere kabuz doala, ez dela eskolatik antolatutako ekintza. Bukatzeko, aurten lehen aldiz, Bizkaiko Mendi Federazioarekin 3 mendi-irteera egin direla azpimarratzen da.

**Eskolaz-kanpoko ekintzen** arduradunek, Maitek eta Amaiak, honako hau aipatu dute: eguerdian eskulanetan talde 2 eta ingelesean 3 egon direla eta arratsaldeetan euskal dantza talde 1 eta dantza garaikideko 2.



Lehendakariak, datorren ikasturterako, **begiraleen kontratazioak direla eta** etor daitezkeen aldaketek, besteak beste, ekintzen kuoten igoera ekar dezaketela esan du.

**Gurasoen formazioari dagokionez**, Belenek eman digu egindakoaren berri: azaroan Isabel Santiagorekin burututako 4 coaching saioak, dantza garaikideko guraso talde 2ak, Mankomunitateak eskainitako teknologia berriei buruzko ikastaroa eta Iurretako pediatria den Txema Arginzonizek emandakoa, suspertze kardiobaskularrari buruzkoa, alegia. Amaitzeko. Gogorazi nahi da, IGEko hileroko batzarretan proposatu eta onartzen direla ikastaroen gaiak.

**Bibliotekako** batzordearen txanda izan da hurrengo; Marrek eta Aitziberrek egitasmoaren hasieratik eta urtarrilera arteko laburpena egin dute. Isabel izan da egitasmoaren buru, baina lan-taldeari esker honako behar hauek eraman ahal izan dira aurrera: urtarriletik maiatzera, 2.500 libururen katalogatze, sailkatze eta antolaketa, familien artean liburuak emateko deia egin, eskolako biblioteka-komisioko irakasleekin batzarrak, bibliotekaren garrantzia azpimarratzeko Zabalarako irakasleekin izandako batzarrak, gai jakin batzuen erakusketak (ihauteriak, Emakumeen Eguna) eta inaugurazio eguneko ekintzak (ipuin kontalaria, **ikasleei bibliotekako karnetak ematea, photocall-a, dekorazioa...eta abar**).

Behin abian jarri eta gero, datorren ikasturtera begira, biblioteka eskola orduetatik kanpo irekita izatea planteatzen da xede modura, baita barne-araudi bat sortzea eta Zabalaran irakurketa bultzatzeko egitasmoa gauzatzea.

**Goiztiarren zaintza** (8:00-9:00) honen sustatzaile den Ainhoak azaldu du. Ikasturte honetan 4 ume izan dira bertan. Familia bakoitzak, umea bertan lagatzen duen eguneko ordaintzen du. Begiralea Berbaroko kide bat izan da, eta datorren ikasturteari begira ume gehiago espero direnez, horrek zaintzaren kuotaren beherakada ekarriko duela uste da.

Gaizkak azaldu ditu **euskera batzordeak** aurrera eramandako egitasmoak. Nere eta Harkaitzekin batera, Gaizka batzorde berri horretako partaidea da. Hasteko, ikastetxean bertan euskera klaseak jasoteko gurasoek izan ahalko luketen interesari buruzko inkesta aipatu du. Inkesta egin eta emaitzak jaso ondoren, otsailean guraso talde 1 klaseekin hasi zen, IGEren gelan, astean bi orduz. Euskera klase hauetan aparteko garrantzia eman nahi zaie ikasleek erabiltzen dituzten testu liburuei, eta beraietatik hainbat gauza lantzen dira.

Bestalde, kirolean euskara sustatzeko hitzarmena sinatu da eta ikastetxean *Zerk elkartzen gaitu?* izeneko kanpaina jarri zen martxan Euskeraren eguna zela eta. Egunerokotasunari lotutako hainbat iruditan, euskerak elkartzen gaituela azpimarratu nahi zen.

Korrika eta Korrika Txikian ere hartu dugu parte, beti legez; euskera jakin ez arren, umei etxerako lanetan nola lagundu azaltzeko hitzaldia eman digu Iñaki Eizmendik eta amaitzeko, klaseetako azkenaurreko egunean antolatutako Euskal Jaia, non herri kirolak, trikitixa, txistorra jana eta eskolako euskal dantza taldeko umeek erakustaldi bat egin baitzuten.

Bestalde, IGEk, urtero 6.mailakoek bertsolaritza klaseak jasotzeko, ikastaro horren kostu totalaren %50 ordaintzen duela aipatu da



Saioaren ardurapean dauden IGEk antolatutako **irteeretan**, hauek izaten duten arrakasta azpimarratzen da. Abenduan urtero egiten den irteera Izenadubakoa da (Olentzeroren etxea), aurtengo martxoan beste irteera bat egon da Durangoko Astronomi gelara eta bukatzeko, maiatzean Hontza Extremera beste bat..

Estik eta Aitziberrek IGEk antolatutako **ospakizunen** berri eman dute: Txitxiburduntxi, 6.mailakoen familiek antolatzen dute, bertan jasotzen den dirua ikasle horien ikasturte amaierako bidaiarako erabiltzen baita. Jai honetan IGEk txokolatzea banatzen du doan; arrakasta itzela izan zuen. Gaztaineren ere laguntza eskaintzen da eta baita Eguen Zuri egunean eta Santa Agueda egunean ere. Azken hauek direlas eta, zenbait kexa azaldu dira, esandako ordua baino lehenago hasi baitziren eta zenbait familia ez ziren garaiz ailegatu, ez ikusteko ez partehartzeko.

Olentzero eta Mari Domingi eskolara etorri dira gelaz gela opariak banatzera; honen guztiaren kostua IGEk hartzen du bere gain. Azzaroaren 25erako, Genero Indarkeriaren Aurkoako Eguna, *Maite nauenak ondo tratatzen nau* leloarekin marko handi batzuk prestatu ziren eta nahi zuenak leloarekin argazkia ateratzeko aukera izan zuen. Argazkiak blogera igo ziren. Martxoaren 8rako IGEk ipuin ez-sexisten erakusketan parte hartu zuen eta Zabalarrako emakumeen irudiekin (ama, famoliarteko, irakasle, bestelako langile eta ikasle) video bat prestatu zen eta video hori gela guztietan ikusi zen.

Patinatzea gustuko duten familien topaketa bat antolatu zen, martxoko igande batean. Dinamizatzaileak, ikastetxeko guraso diren Felix eta Itsaso izan ziren. IGEk, amaieran, luntxa eskeini zien partehartzaileei.

Azkenik ikasturte amaierako jaia dago; beti legez, aurten ere 5.mailako familiek proposatu eta antolatu dute, IGEren laguntzarekin. IGEk, jai honetarako boluntarioak jartzeaz gain, gastuak ere ordaintzen ditu. Jai honetan saltzen diren pintxoak dirua 5.mailako ikasleentzat doa.

### 3. KOMUNIKAZIOA ETA IDAKARITZA

**Komunikazio** taldeko Egukiñek, familiekin komunikatzeko erabiltzen diren bide guztiak aipatu dizkigu. Blogak, ikastetxeari dagokion oinarritzko informazioa jasotzen di (zerbitzuak, agenda, egitasmoak, eskolaren beste hainbat ekintza, IGEren ekintza guztiak eta aurten lehen aldiz, gure materiala saltzeko gunea). Blogak 9,304 bisita jaso ditu euskeraz eta 5,536 gazteleraz.

Facebookean 292 lagun ditu Zabalarrak, eta horretaz gain, eskolako kontuetaz aritzeko 59 gurasoko talde itxi bat.

Twitterrean 124 jarraitzaile ditugu. Azken bi sare hauetan egunero dago zerbait berria eta eskolari dagozkion gaiak baino ez dira jorratzen bietan.

Mail bidez 80 laguni bidaltzen zaizkie oharrak.

Korporazio irudi bezala aurten photocalla eskuratu da; eskolako kamisetak berriro atera dira, eta horiek jantzita joan ginen Eskola Publikoaren Aldeko Jaira. BukatzekoBihotzaren logoa daukaten tazak ere atera dira.



Bideoak: Youtube eta Daylimotionera igotzen dira. Dagoeneko 60 daude. Batzuk, (azaroaren 25ekoa esaterako) eskolak eskatuta egin dira, beste batzuk IGEren ekimenez (martxoaren 8koa eta Korrikakoa) eta besteak ohiko kolaboratzailea den Felixen ekimenez (patinatzaileena, saskibaloikoak, irteeretakoak...)

Argazkiak (aldizkariak, ihauteriak, ospakizunak...) Flickrera igotzen dira eta blogari lotzen zaizkio.

IGEren sakelekoa batzorde desberdinetako kideek erabiltzen dute, beraien ardurei dagozkien hainbat lan betetzeko (kuota ordaintzen gorabeherak, izena emateko daten berri emateko...) eta whatsapp taldeekin komunikatzeko.

Eguzkiñe eta Isaren artean prestatutako eskolako aldizkariaren 3.zenbakia ikasturte amaieran argitaratuko da. Eguzkiñe eta Isarekin batera, hainbat gurasok ere laguntzen dute bai argazkiekin, bai testuen zuzenketarekin, itzulpenekin...)

Isak, idazkari bezala, **idazkaritzatik** aurten egindako lanen berri eman du: hileroko 10 bilera, hileko lehen asteartean, 15:00etatik 16:25era. Idazkaritza arduratu da, besteak beste, familien emailak jasotzeaz, informazioa bide horretatik bidaltzeko.

50 bat informazio-orri egin dira, Zabalarrako Zuzendaritza eta IGEko Zuzendaritzaren arteko 8 bilera eta hartzaindegi zerbitzua eskaini zaie familiei, bai batzarretara eta bai hitzaldietara joan ahal izateko.

**Bazkideen Erregistro Liburua** berritzeko asmoz, idazkaritzatik galdetu da ea zeintzuk datu diren beharrezkoak eta honako hauek **ONARTU** ditugu: izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta emaila.

#### 4. KUDEAKETA EKONOMIKOA

Estik eta Mariolak, **diruzaintzatik**, diru-kontuen laburpena egin dute.

Kudeaketa gero eta hobea izateko asmoz, datorren ikasturteari begira **aldaketa garrantzitsu bi proposatu** dira; alde batetik, urteko kuota umeko mordaintzetik familiako ordaintzera igaro behar garela, legeak horrela agintzen duelako gaur egun; eta beste aldetik, aipatutako kuotak igoera jasan beharko duela, eskolarekin batera garatzen ditugun ekintzetan inbertsioa handitu eta begiraleak kontratatzeak ekarriko duen gastuei aurre egin ahal izateko.

#### 5. EGITASMOAK

Amaitzeko, Gaizkak ikasturtean zehar abian jarri diren beste hainbat asmo ere azaldu ditu: ortua, zeinantzako 4 zapalda erosi baitira. Zapaldok Anak, Marijok Endiak eta Gaizkak (eskolako gurasoak denak) eta Haur Hezkuntzako irakasleen artean bete eta zaindu dituzte.

Aipatzen den beste gai bat LOMCeri lotuta datorren ikasturte amaierako azterketarena da. Horri buruz hitzaldia ematera etorriko dira datorren ikasturtean

Oraindik martxan jarri ezin izan den egitasmoa "*Que no te falte lo que a mí me sobra*" da. Iratxe eta Eva animatu dira datorren ikasturtean asmoa abian jartzera.

#### 6. GALDE-ERREGUAK

Eskolaz-kanpoko ekintzetara robotika gaia eskaintzearen proposamena ailegatu da.



IGEtik, batzordeetan partaide berrien premia dagoela azpimarratu da; bereziki Zuzendaritzarako beharko litzateke jende berria, bertako 3 partaidek bederen (Isa, Mariola eta Gaizka) egokitzen zitzaizen bi urteko konpromisua bete ondoren, ardua uzteko asmoa baitaude. Pertsona bi (Miren eta Rebeca) idazkaritzarako prest agertu dira, beste bat (Nerea) Estirekin batera diruzaintzan behar egiteko eskaini da eta azken lagun bat (Nerea) behar denean esku bat botatzeko prest azaldu da. Aldaketa hauek, eta etor daitezkeenak, ikasturte hasierako batzarrean gauzatuko dira.

Bukatzeko, Batzordeak eskerrak eman nahi izan dizkie bertaratu diren gurasoei, eta baita IGEk aurrera jarrakitzeko lan boluntarioa egiten duten giuztiei ere.

Honen bestez amaitu da bilera, 19:15ean.

Izenpetua. Idazkaria

Oniritzia. Lehendakaria